

## II. ERANSKINA

### BALORAZIO-IRIZPIDEAK

1.– ESKU-HARTZEAREN KALITATEA (40 puntu, gehienez).

1.1.– EGOKITASUNA: 15 puntu, gehienez.

1.1.1.– Proposamenaren egokitasuna, alderdi hauek aintzat hartuta: testuingurua, lagundutako prozesuak eta eLankidetzak indarrean dituen plangintzetan ezarritako lehentasunak: 10 puntu, gehienez.

Honako hauek baloratuko dira: proposatutako programaren izaera berritzailea; programaren egokitasun-maila, zer testuingurutan garatzen den kontuan izanda; zer balio erantsi dakarren, eLankidetzaz-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak alde aurretik finantzaturako prozesuen aldean, eta zenbateraino datorren bat indarrean dauden plangintza-tresnetan ezarritako lehentasunekin.

1.1.2.– Gehienbat Afrikan garatzeko proposamena: 5 puntu.

Gehienbat Afrikako herrialde batean garatzen diren ekimenak baloratuko dira.

1.2.– KOHERENTZIA: 15 puntu, gehienez.

1.2.1.– Proposatutako plangintza-matrizearen koherentzia: 5 puntu, gehienez.

Helburu orokorraren, helburu espezifikoren, emaitzen, adierazleen eta ezarritako jardueren artean dagoen koherentzia baloratuko da, bai eta proposatutako helburuak eta jomugak lortzeko jardueren eta emaitzen arteko osagarritasuna ere.

1.2.2.– Xede-biztanleriaren koherentzia eta emakumeen parte-hartze aktiboa: 3 puntu, gehienez.

Proposatutako xede-biztanleriaren koherentzia baloratuko da, programaren helburuei dagokionez, ikusezin bihurtutako kolektiboen parte-hartzeari dagokionez eta programako ekintzetan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri espezifikoak txertatzeari dagokionez.

1.2.3.– Jardueren deskribapena: 4 puntu, gehienez.

Programaren esparruan garatu beharreko jarduera guztiak eta jarduera horien ardura duten elkarteko entitateak eta edukiak behar bezala deskribatuta dauden baloratuko da.

1.2.4.– Aurrekontua: 3 puntu, gehienez.

Jardueren, bitartekoen eta kostuen artean lotura koherentea dagoen baloratuko da, aurreztutako aurrekontua kontuan hartuta.

1.3.– BIDERAGARRITASUNA: 5 puntu, gehienez.

Programa garatzeko aurreikusitako giza baliabideen egokitasuna baloratuko da, bai eta elkarteko entitateen baliabide metodologiko, tekniko eta instituzionalak ere. Horiek eskabide normalizatuaren eranskin gisa egiaztatu ahal izango dira.

1.4.– Behin betiko proposamenaren eta identifikazio fasean aurkeztutako profilaren arteko lotura: 5 puntu, gehienez.

Behin betiko proposamenaren eta identifikazio faserako deialdian aurkeztutako profilaren arteko koherentzia aztertuko da, eta fase horren garapenaren ondorioz egindako aldaketen egokitasuna baloratuko dira.

2.– IKUSPEGI GLOKIKOA ETA ZEHARKAKO IKUSPEGIAK TXERTATZEA (60 puntu, gehienez).

2.1.– IKUSPEGI GLOKIKOA TXERTATZEA: 40 puntu, gehienez.

2.1.1.– Egiturazko arazoei eta erronka globalei heltzea: 5 puntu, gehienez.

Programak jorratutako egiturazko arazoari edo erronka globalari buruz egindako azterketa baloratuko da, bai eta esku hartzeko lurraldeetan eta xede-biztanlerian duen eragina ere. Era berean, lehenetsitako erronka edo arazoaren, programaren helburuaren eta lurralde bakoitzerako proposatutako lan estrategien arteko koherentzia baloratuko da.

2.1.2.– Iparraldeko eta Hegoaldeko entitateen arteko artikulazioa: 10 puntu, gehienez.

Honako hauek baloratuko dira: elkartea osatzen duten Iparraldeko eta Hegoaldeko entitateek sustatu behar dituzten ekintza eta estrategiak antolatzeko modua, zer sinergia sortuko diren horien artean, eta batera jarduteak zer balio-erantsi dakarren programaren helburua lortzeko.

2.1.3.– Aliantzak: 5 puntu, gehienez.

Programa garatzeko elkartea osatzen duten entitateen funtzioen, rolen eta zereginen argitasuna eta osagarritasuna aztertuko dira. Baloratuko da, halaber, elkartearen barruan elementu berritzaileak egotea eta beste eragile batzuekin aliantza adierazgarriak egotea, lurraldeetan eta mailetan programaren garapena indartzeko.

2.1.4.– Maila anitzeko ekintza: 10 puntu, gehienez.

Programaren ekintza-esparrua aztertuko da, tokiko, estatuko eta nazioarteko mailak bereizita. Maila horietarako aurreikusitako lan-ildoan artikulazio-maila baloratuko da, eta aztertuko da zer ekarpen egiten duten programaren helburua lortzeko.

2.1.5.– Norbanakoei laguntzea eta herritartasun globala eraikitzea: 10 puntu, gehienez.

Xede-biztanleriari laguntzeko eta haien gaitasunak indartzeko prozesua gidatuko duten ikuspegi politiko-pedagogikoak aztertuko dira. Kontzientzia kritikoa eta eraldatzeko borondatea konbinatzeko ekintza-ildoak egotea baloratuko da. Programak hainbat lurraldetako xede-biztanleria konektatzeko eta abiarazten dituen eraldaketa-ekintzei laguntzeko duen ahalmena ere baloratuko da.

2.2.– ELANKIDETZAK LEHENETSITAKO GAINERAKO ZEHARKAKO IKUSPEGIAK TXERTATZEA: 20 PUNTU, GEHIENEZ.

2.2.1.– Genero-ikuspegia txertatzea: 5 puntu, gehienez.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak murrizteko programan aurreikusitako estrategia baloratuko da.

2.2.2.– Gaitasunak indartzeko, parte hartzeko eta entitatea indartzeko ikuspegia txertatzea: 5 puntu, gehienez.

Aztertuko da zer estrategia aurreikusi den programan, xede-biztanleriaren gaitasunak indartzeko lurralde bakoitzean, euren parte-hartze aktiboa indartzeko erabakiguneetan eta euren antolakundeak indartzeko.

2.2.3.– Giza eskubideen ikuspegia txertatzea: 5 puntu, gehienez.

Programan landutako eskubide nagusia kontuan hartuta, aztertuko da zer ekintza eta estrategia aurreikusi diren eskubideen titularrek indar handiagoz defendatu edo exijitu ahal izan ditzaten eskubideok edo betebeharren titularrek indar handiagoz errespetarazi, babestu eta sustatu ahal izan ditzaten betebeharrak.

2.2.4.– Jasangarritasun ekologikoaren ikuspegia txertatzea: 5 puntu, gehienez.

Aztertuko da zer ekintza eta estrategia aurreikusi diren programan, ekosistemak babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko edo xede-biztanleriaren eta ingurumenaren arteko harreman jasangarriagoak sustatzeko. Ekintza horiek programaren jarduketa-estrategia orokorarekin duten koherentzia aztertuko da, eta aurreikusitako jardueren garapenak eragindako inpaktu kaltegarria prebenitzeko eta arintzeko aurreikusitako neurriak baloratuko dira.